


Zuhetza
eskola alaitasun
deba

BERRIKETAN

Debako herri aldizkaria - 227. alea - 2018ko martxo



**Aspaldiko mobilizaziorik
jendetsuenak M8ko plantoan**



**URDAITEGIA
AITTOLA
HARATEGIA**

Astillero, 3
Tlfnoa.: 943 191 776
20820 DEBA

LENTZERIA

Azoka

MERTZERIA

Itur kalea, 9 • Tlfnoa.: 943 192 722 • DEBA



MAXI BAR

Lersundi, 28
Tel.: 943 191 206
Deba (Gipuzkoa)



ZALBURDI

Plaza Arakistain - DEBA Tel.: 943 19 20 03



GENOVEVA
Arraindegia

Ostolaza Kalea 25.
20820 DEBA (Gipuzkoa)
Telf.: 943 191 818



Bar LOREA

"Orotariko tartak etxean eginak"

Angulero kalea • 20820 DEBA • Tlfnoa.: 943 191 095



urlo

SERVICIOS INMOBILIARIOS
HIGIEZINEN ZERBITZUAK

Sokagin, 2 bajo
Apartado 3
20820 DEBA

API
Nº 379

Higiezin Zerbitzuak
Aholkularitza
Higiezin Agentzia
Komitaduen administrazioa
Tasazioak/ Balioztaketak

Tel.: 943 192 471
Tel./Fax: 943 192 303
urlo@urlosi.net



ASKETA, S.L.

ERAIKUNTZAKO ZERBITZU INTEGRALA

OFICINAS Y EXPOSICION:
Maxpe, 3-5 - 20820 DEBA (Gipuzkoa)
Tel.: 943 191 952 - Faxa: 943 192 460
E-mail: asketa@telefonica.net
www.asketa.net

ALMACÉN:
Parque Empresarial Esser - Pabellón NN 8-9
20850 MENDARO (Gipuzkoa)

K21
KALITATEA
Enpresa Registrada Nº 2/05/049
NIVEL 2



ITXAS GAIN
Taberna
ITXAS GAIN

Handartza ondoan
Urte guztian zabalik

Nafarroa Plaza • Tlfnoa.: 943 192 576
20820 DEBA



ARKATZA
Liburudenda

Tel.: Ostolaza, 3
943 192 057
20820 DEBA



SUKIA

Fruitu eta Barazkiak

Lersundi, 13
Tel.: 943 192 386
Deba (Gipuzkoa)



Seven Clovers
Irish pub

943 191 295



AUKERA
INMOBILIARIA

www.aukera-inmobiliaria.com
Aukerarik onena!

943 12 13 95

API 447

227. alea - 2018ko martxoa

AURKIBIDEA

04

IRITZIAK

“Pentsio duinaren alde eta lansari prekarioen kontra borrokan”,
“Deskargu arrazoitua”

06

MARTXOAK 8

Mugimendu feministak deitutako grebari emandako erantzuna Deban eta Itziarren

08

AURREKONTUAK

2018rako aurrekontuak onartu ditu Udalak. Ehbilduren eta Itziarko Auzo Udalaren iritziak

12

ELKARRIZKETA

Debako Gazte Emantzipaziorako Taldeko kideekin solasean

14

B. GAZTEA

Arotz-Eneara irteera, “Inor ez da perfektua” diskoko kideei elkarrizketa, inkesta...

Zuhatzak apirilaren 13an egingo du batzar orokorra

Zuhatzakide agurgarria:

Lerro hauen bitartez, urteko Bazkideen Batzar Orokorrerako deialdia egiten dizugu. Bertan, 2017. urteak eman duenaren berri eman eta etorkizunerako ditugun asmoak zurekin (BAZKIDE) konpartitu eta adostu nahiko genituzke.

Batzarra datorren apirilaren 13an (ostirala) egingo dugu, arratsaldeko

19:00etan, Kultur Elkartearen (Ostolaza kalean). Bertan, 2017ko gestio-balantzea azaldu eta 2018rako aurrekontuak eta egitasmoak izango ditugu hizpide.

Euskara eta euskal kulturaren aldeko dinamikari jarraipena eman ahal izateko, Zuhatzak behar-beharrezkoa ikusten du elkarteko bazkideon inplikazioa eta babesa. Hitzordura hurbiltzerik ez baduzu, zure proposamen, kritika edo irado-

kizunen berri emateko Zuhatzaren bulegotik pasa edo gurekin harremanetan jarri (943 19 13 83 telefono zenbakira deituta edo koordinatzailea@zuhatza.com helbidera idatzita).

Hurbil zaitez Zuhatzara, atea zabal-zabalik dituzu! Besterik gabe, apirilaren 13ko batzarrean elkar ikusiko dugulakoan, agurtzen zaitugu.

Zuhatza Euskara Elkarte



Ifar kalea, 12 behea
20820 Deba
Telefonoa: 943 19 13 83
Aldizkariaren e-maila:
berriketan@zuhatza.com
Elkartearen e-maila:
koordinatzailea@zuhatza.com

ARGITARATZAILEA



LAGUNTZAILEAK



Debako Udala



Hozkuntza, Hitzuntza Politika eta Kultura Sailak
(Hozkuntza Politikarako Saiburoordetza) druz lagundua



Gipuzkoako Foru Aldundia

Argitaratzailea:

Zuhatza Euskara Elkarte. Deba.

Kolaboratzaile berezia:

Mendata BHIko prentsa tailerra.

Koordinatzailea: Izaro Aulestiarte

Hizkuntza ardura: Lukax Dorronsoro eta Izaro Aulestiarte

Azaleko irudia: Erredakzio taldea

Publizitatea: Joseba Escudero eta Koldo Aperribai

Logotipoaren diseinua: Iñaki Elosua

Maketazioa: Leire Rubio

Tirada: 1.400 ale

Maiztasuna: Hilabetekaria

Inprimategia: Euskalinpri

Lege gordailua: SS-246-2009

ISSN 2171-7656

OHARRA:

Berriketan-ek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta GUTUNAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitz guztiek ondo identifikatuta egon beharko dute argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek jartzea: izen-abizenak, NAN eta telefono zenbakia, nahiz eta gero izen-abizenak soilik argitaratu. Idatziak gehienez 1.500 karaktere izan beharko ditu eta berriketan@zuhatza.com helbidera bidali beharko dira, hilabeteko lehenengo astelehena baino lehen.

Francoren kontra bezala, orain pentsio duinaren alde eta lansari prekarioen kontra borrokatuko gara

Adin batetik gora goazenok beti erabili izan genuen oso ezaguna den esaera bat: "Negar egiten ez duenarentzat ez dago titirik"; eta berdin gertatzen da orain ere. Pentsioak gelditu dauden bitartean, bizimodua garestitzen doa; erosteko ahalmena gutxitzen doakigula, alegia. 2012. urtetik 2018ra %6-7 gutxitu zaigu erosteko ahalmena, eta gaurtik 2028ra %20ko galera izango duela uste dugu. Honek dagoeneko pentsiodun garenok egiten digu kalte lehenbizi; baina, ondoren, bereziki 2019tik aurrera jubilatuko direnei ekarriko die kaltea, 2013/23ko legearengatik, "jasangarritasun faktorea" ezarriko baitu eta bizi-itxaropenaren arabera laburtzen joango baita hasierako pentsioa; zenbat eta bizi-itxaropen handiagoa orduan eta handiagoa pentsio mozketak.

Horrez gain, egoera laborala eta soziala gero eta gehiago okerragotzen doakie gizarteko maila zaurgarrienei. Estatistikek diotenez, langabezia gutxitzen doa; hala ere, lanbide prekarioa gero eta ugariagoa da gazte jendearen artean. Lanaldi partzialeko milaka kontratu sinatzen dituzte, milaka ordu sartze lanorduztat kontabilizatu gabek eta, beraz, kotizatu gabek; emakume eta gizonezko langileen behar ekonomikoak eta bizibidea ziurta ditzakeen lansari minimorik eza, horrela jarraituz gero pentsio duinen iraunkortasuna zailduko duena.

Bien bitartean, Europa, Espainiako Estatuak eta EAE bera gobernatzen dituztenek beste era batera pentsatzen eta jokatzeko dute benetan. Hona horren adibideak:

Christine Lagarde Nazioarteko Diru Funtseko zuzendariak dioenez, ekonomia-aren arazoetako bat bizi-itxaropena luzatzen joatea da. Lagardek, PPK bezalaxe, arazoa konpontzeko pentsio pribatuak kontratatzea aholkatzen du. Beroiek sortzen dute arazoa; gero, soilik aberatsenen (erabat espekulatiboak izanik finantzen munduan), Amazonas ibaian pirainak bezala dabiltzan Pentsio Fondo pribatuen mesederako izango diren konponbideak asmatzeko.

Madrilen PSOEek, Jose Luis Rodriguez Zapatero gobernuburu izan zuen azken urtean, izoztu egin zituen pentsioak. Ondorengo bost urte hauetan, 2018a barne, PP gobernuan dela, %0,25eko igoera izan dute pentsioek: adarjotze hutsa.



2017ko Estatuaren Aurrekontu Orokorrak PPK, Ciudadanosek, EAJ-PNVk, Coalicion Canariak eta Nueva Canariak onartu zituzten, honako hau barne: "Gizarte Segurantzaren sistemak ordaintzen dituen pentsioek, estatuko giza-talde pasiboenek bezala, %0,25eko igoera izango dute orokorki 2017an". -Espainiako Estatu Buletin Ofiziala, 153. alea. 2017ko ekainaren 28a, asteazkena-

Zenbat gara debar eta itziartarrak?

Jubilatzeko adinean edo 65 urtetik gorakoak.

Urte-tarteak	Gizonak	Emakumeak	Denak	%
0-17 urte	484	482	966	% 17,63
18-64	1645	1717	3362	% 61,35
65 urtetik aurrera	606	546	1152	% 21,02
Guztira	2735	2745	5480	% 100

Deban, otsailaren 20an, eta Itziarren, 27an, "Duintasuna" Elkartearen ordezkariekin hizketaldi bat izan genuen, 100dik gora lagunen parte-hartzearekin.

Zeintzuk dira jubilatuko eta pentsiodunen erakundeek egiten dituzten eskariak?

1.- Pentsioa KPIaren arabera joan dadila eskatzen dugu.

Ez dugu ontzat ematen pentsioak %0,25 soilik igotzea, Kontsumo Prezioen Indizea %1,60koa denean.

2.- Galdurazi diguten guztia itzuli diezagutela eskatzen dugu. PSOEren azken urtetik hasi eta ondorengo PPren urteetako.

3.- 1080 euroko pentsio minimoa eskatzen dugu, eta urteko 14 ordainsariak mantentzea.

Zergatik eskatzen ditugu 1080€? Europako Gutun Sozialak gomendatzen du. 1996an birmoldatua, Europa Batuko

herrialdeek babestua Espainiako Estatuak barne, Europako zenbait herrialde interpetlatzen dituen jende langilea eta pentsioduna babes ditzaten, pobrezia-ateetan (bizibide duinaren eta pobrezia-ate mugan) jausi ez daitezten, Lansari Minimoa eta Pentsio Minimoa ezarri. Lansari Ertaintetik abiatuta kalkulatu litzateke hori; gure kasuan, EAE, Euskal Autonomia Elkartearenetik.

*Lansari Ertaina/urtean 28.000 €
*Lansari Ertaina/hilean 14 paga 2000€

*Lansari Minimoa/urtean
28.000ren %60a = 16.800 €
*Lansari Minimoa/hilean
14 paga 2.000ren %60a = 1.200€

*Pentsio Minimoa/urtean
16.800ren %90a = 15.120 €
*Pentsio Minimoa/hilean
14 paga 1.200ren %90a = 1.080 €

Datuak: Behagi.eus, Gipuzkoako Gizarte Behatokia, 2016

Zera proposatzen dugu: Eusko Jaurlaritza joan dadila mailaz maila Pentsio Minimoak jasotzen, lau urteren buruan 1080 eurora heltzeko. EAERen eskumena aintzat harturik, osagarriaren ordainketa RGIaren bidez zertuko litzateke. Lagarren urtetik aurrera, KPIaren arabera eguneratuko dira pentsioak.

4.- Gizarte Segurantzako Sistema Publikoa Komunitate Autonomoan eta Nafarroan.

"Duintasuna" Elkartetik mota guztietako erakundeen arteko elkarlana eskatzen dugu, batasunak soilik egiten baikaitu indartsu gobernuen politika neoliberalen aurrean, bizibide duina den gure helburua lortzeko.

"Duintasuna" Elkarte
Gipuzkoako Jubilatuko eta Pentsiodunen

Deskargu arrazoitua

Neu naiz martxoaren 2ko ostiral iluntzean, Debako Zumardian, Polentzi Markiegiren omenez eginiko eskulturak gainean zituen bestelako jantziak: mustuka edo plumero eskubiko besaldean bururaino heltzen zitzaiona, eta amantal gisa leporaino loturiko plastiko urdina ulertezinezko letra beltzez idatzia ondo loturik zeukana zeloz eskultura osoari, KENDU NIZKIONAK, lotsez beterik, gainera!

Iluntzero egin ohi dudana bezala, abiatu nintzen moilara, eta hondartza aurretik Sorozabalen ibilbidetik abiatzean, konturatu nintzen, eskaileretan behera jaitsita dagoen begiratokiko eskulturaren, Pablo Sorozabalen omenez eginikoan alegia, honek ezkerreko besoan erratza zuela jarria, eta eskuineko eskuaz itsasoa erakusten duen hatzetik gomazko eskularru horia zintzilikaturik.

Harridura baino hobe zelakoan, kentze aldera egin nuen, eta ezinezko zela ohar-tuz, zer pentsatua eman zidan. Martxoaren 8ko borroka egunaren atarikoak ez dira bada izango? Horrela balitz, zer kontzientzia jasoko dute Debako gizonak eta Deban bizi garenok honelako ekimenekin? Horrelakoek egingo al dute emakumeon benetako egoera jasanezina hobeto ulertaraztea? Eta, burutazio horrekin jarraitu nuen nire paseoa...

Itzultzean, Zumarditik igarotzean, ikusi nuen aipatutako Polentziri egina. Eta, Polentziri diot, zeren ez dut uste Deban inor egongo denik jakin gabe, umeak izan ezik, **Polentzi Markiegi Debako alkate zela 1936an, Francok Estatu kolpea jo zuenean Errepublikaren aurka gerra piztuz Estatu osoan.** EAJ/PNVko militante zen. 1937ko abuztuaren bukaeran Santoñako (Santander) El Dueson kartzelaratu zuten eta egun batzuk geroago, heriotza zigorra ezarri. 1937ko urriaren 15ean fusilatua Berriako hondartzan, Santoñan.

Polentziren aurkako ekintza dela esatea gehiegikeria iruditzen zait, baina irain egitea gogorregia da niretzat.

Iaz, Debako Udalak Gipuzkoako Aldundiarekin bat eginik, Polentzi Markiegi eta erailak izan ziren Gipuzkoako hainbat gudari omendu genituen, diot, hain ginelako herritarrok ere, senitarteko, eta politikarien artean, nahiz eta egun hartan omendu gabe eta alde batera utzitako seni-

deak ere izan ziren, nire uste apalean.

Nire burutazioekin, eta "ekintza" bete ondoren, lauzpabost neskatok ikusi nindutelarik, etxeranzko bidea jarraitu nuen, buruan Fermin Calbetón nuela, Zumardiko beste muturrean zegoela ohartuz. Ez zen zaila asmatzea, ez! Hantxe, bere tokian zegoen eskultura, bufanda legez plastikozko banda zabala lepoan, eta handik gora mustuka edo plumeroa buru gainean, txapela zirudiela. Besterik bazuen ez dakit, ez bainion gainbegirada bat besterik eman.

Eta neskato haiek buruan nituela eta askotariko pentsamenduez etxeratu nintzen, ikusirik gizarte berri bat eraiki nahi badugu denon artean, ezinbesteko dugula egin ez dugun zerbait ondo egitea: **transmisioa.**

Zer ikasten ari dira neska-mutilak etxean, eskolan, lagunartean? Zer ote dute buruan ulergaitza egiten zaidana? Zer nahi ote dute, ez soilik beren buruentzat, Debarako? Euskal Herrirako? Nolako nahi dute? Ala ez dabilta horrelako burutazioekin?

Garbi daukat, alde batetik, ez diegula behar bezala geuk bizi izandakotik erakutsi, bestetik, familia ez dela izaten ari transmisio lekua gure garaian bezala, eta hirugarrenoz, eskolara derrigorturik joaten direla. Ez dela ilusioa sortzen dien tokia, alegia, ez lagunartera, ezta harremanak izateko tokia ere... Ikasketa urtea bukatu nola hala, eta kito!

Mundu berri baten bila dabilta, gu geure garaian bezala, beraz, lagungarri al zaizkie martxoaren 8ko egunaren bueltan honelako "maskaradak"?

Emakumeon egoera ulertarazteko aipatu ditudan tokietatik hasi beharko gazteei begira. Eta, emakume guztioi begira, berriz, feminismoa erreibindikatu giza harremanetarako ere: lantokian, ikastetxetan, etxean eta bizitzak jartzen gaituen tokia guztietan. Lotsagarria zait gizonak horrelako ispiluan ikus gaitzaten!

Hau guztia, horrela sentitzen dudalako, ez ninduen harritu ikusitakoak martxoaren 8ko atariko gisa: **hiru gizon ospetsuen irudiak irainduak, ez beren ibilbideagatik, gizonak zirelako baizik. Eta hau grabea iruditzen zait.**

Pablo Sorozabal, 1897ko urtean jaio zen Donostian, langile-familia euskaldunean. Era guztietako lanetan ibili zen

barruan zeraman gogoa burutu ahal izateko: musika ikasketak. Madrilen, Bartzelonan... bizi izan zen, musika-konpositore izatea lortzeraino. Ospetsua izan zen, batez ere, zarzuela konpositore gisa.

Deba eta debarrekin harreman ona izan zuen. Udan, askotan etortzen zen hona. Era horretara, debar talde batek, Jose Inazio Urbietan buru zelarik, behin baino gehiagotan eraman izan zuen Ozio-Bide elkartera. Hauen eskaera, Debarako martxa egitea, egi bihurtu zen. "Hirugarren Kalez Kale" idatzia zuena, Debako herriari eskaini zion "Debako Martxa" izenarekin. 1897ko urtean hil zen 91 urte zituelarik.

Fermin Calbetón, Donostian jaioa 1853ko urtean. Politikari familiarik zetorren, aita politikari eta legelaria. Eta berak ere hortik jo zuen. Alfonso XIII.a errege zelarik, Fermin Calbetón Alderdi Liberaleko partaide izan zen. 1898an Gipuzkoako senatari legegaldi batzuetan, eta 1903tik biziarteko senatari izendatu zuten. 1910ean Sustapen ministro kargua izan zuen, eta Ogasun ministro zela hil zen 1919ko urtean. Enbaxadore ere izan zen "Vaticano"n Pio XII.a Aita Santu zegoenean.

Bere politikari ibilbide horretan entzuna dut lagundu zuela hainbat herritan behar zutena lortze aldera: Deban bastinuixa deitzen dena egiten, esate baterako, eta Eibarren, Armeria Eskola. Debakoa etxean entzuna daukat umetatik, Calbetón nor zen galdetzean.

Hiru gizonen hauen garaiko emakumeak gaurkoekin alderatuz bestelako buruhausteak izango zituzten, batez ere, gerra garaian. Beraz, ezin ditugu alderatu gaurkoekin, ez garai hartako emakumeak ez gizonak, ezta haiek gaur ditugun arazoan erantzuletzat hartu ere.

Zergatik ez dugu Debako emakume langilea omentzen toki ikusgarri batean eskultura bat jarritz?

Martxoaren 8a Emakume Langilearen Nazioarteko Eguna dugu. Asko daukagu erreibindikatzeko bai, eta askoz gehiago lantzeko egunerokotasunean, geure barru, etxe eta ingurutik hasita.

Horretan izango nauzue indarra falta ez zaidan bitartean!

Itziar Aizpurua Egaña

Erantzun ezin hobea izan du mugimendu feministak *Emakumeok* planto!* lelopean egindako greba deialdiak



Martxoaren 8ko aurtengo greba deialdiak erantzun ezin hobea izan du Euskal Herrian eta nazioartean, baita Deban ere! Kaleak mantal morez josita ikusi ditugu, plaza berria hiru alditan bete dugu, leporaino, adin desberdineko emakumez*, inoiz ez bezala. Horregatik, Debako Talde Feministak eskerrak eman nahi dizkizue, zuek gabe

M8ko planto eguna ezin izango baitzen aurrera ateratzen!

Zoragarria izan da hainbeste emakume* ezberdin borroka berean elkartuta ikustea.

Eskerrak eman baita ere ostalaritza eta merkataritzakoei, emandako harrera eta elkartasunagatik. Baina, batez ere, gure eskerrik beroena babesaren eman

diguzuen pertsona guztioi, gure sareari!

Hemendik aurrera lan handia dugu egiteko, M8 hau emakumeok* egiteko gai garenaren adibide bat baino ez da izan. Ez dugu ahaztu behar egunez egun borrokak jarraitzen duela. Gora borroka feminista!

Debako Talde Feminista
debakotaldefeminista@gmail.com

Deialdiarekin bat Itziarren ere

2018ko martxoaren 8a egun handia izan da, borroka feministak merezitako lekua hartu du Euskal Herri osoan egindako aldarrikapen jendetsuen bitartez. Hiriburuek, herriek, bai eta auzo txikienek ere eztanda egin dute diskriminazio sexistaren, emakumeen aurkako indarkeriaren, matxismoaren aurrean. Berdintasunaren aldarria inoiz baino ozenago entzun da, ez dago beste aldera begiratzerik! Hitzetatik ekintzetara pasatzeko garaia da! Gizarte berdinkidea eraikitzeke garaia!

Hauxe Itziartik egun historiko honi egindako ekarpena. Martxoan zehar Andutz Biltokiak hitzaldi-tailerrak edo formazio saioak ere antolatu ditu, generoaren eraikuntza ardatz hartuta, eta mikromatxismoak eta hizkuntza sexistak gure egunerokotasunean duten presentzia kontzientzia hartu eta hauek ezabatzeko bidean pausoak emateko.

Andutz Biltokia eta Burugorri Martxan



Debak ere bat egingo du Euskaraldiarekin

Lantalde irekiak sortu dira prestaketa lanak aurrera ateratzeko



Dagoeneko zuetako askori ezaguna egingo zaizue Euskaraldia egitasmoa. Euskal Herri osoan, modu bateratuan, garatuko den egitasmoa da. Euskaltzaleak aktibatu eta hizkuntzaren erabilera ohituretan eragitea izango du helburu, eta ekimen honen bultzatzaile nagusiak Eusko Jaurlaritza eta euskara elkarten Topagunea dira.

Euskaraldia 2018ko azaroaren 23tik abenduaren 3ra burutuko da eta euskaraz hitz egiten edo ulertzen dugun guztion artean euskaraz egin dezagun pentsatuta dago. Ekimena Euskal Herri osokoa izango den arren, tokian tokiko euskaltzaleak izango dira herri bakoitzeko dinamiken sustatzaileak, eta inguru soziolinguistiko bakoitzaren errealiterara moldagarria izango da.

Deban abenduaren 3an, Euskararen Nazioarteko Egunean, egin zen aurkezpena eta ordutik beste bilera bat ere egin da. Azken batzar horretan erabaki da, hain zuzen ere, Debako herriak Euskaraldian izena ematea, egitasmoarekin bat egitea, eta sei lantalde osatu dira prestaketa lanak aurrera ateratzeko (kirola, merkataritza, transmisioa, komunikazioa, gazteria eta kultura). Lantaldeetako kideak izendatu ostean, dagoeneko talde bakoitza ari da bere lan ildoak markatu eta lehenengo urratsak ematen. Talde horiek guztiak irekiak dira eta koordinatuta egongo dira, horretarako izendatu den koordinazio mahaiaren bitartez -bertan talde bakoitzeko bozeramaileek hartuko dute parte-. Lantaldeek elkarren berri izatea eta elkarlana sustatzea izango dira koordinazio mahaiaren zereginak.

Lanean hasita bagaude ere, gure helburua da ahalik eta elkarte, talde eta herritar gehienek egitasmo honetan

izena ematea eta, 11 egun horietan, *Ahobizi* edo *Belarriprest* izatea. Beraz, euskaraz hitz egin edo ulertzeko gai diren pertsonak izango dira protagonistak. Beraien ohiko harreman sareetan euskaraz egitea proposatzen dugu: familiar, lagunartean, lanean, eskolan, dendetan... euskaraz aritzeko gonbidapena egingo zaie. Finean, 16 urtetik gorako herritarrak *Ahobizi* eta *Belarriprest* bihurtzea du helburu Euskaraldiak.

Zer dira *Ahobiziak*? Bada, ulertzen duten guztiei euskaraz hitz egiten dieten pertsonak dira (baita ezezagunei lehen hitza, gutxienez, euskaraz egingo dietenak ere). Eta *Belarriprestak*? Euskaraz ulertzen duten pertsonak dira, gainontzekoak euskaraz aritzera gonbidatzen dituztenak, euskaraz entzuteko beti prest daudenak.

Euskaraldiaren 11 egun horietan jendea aktibatuta egoteko eta bere harreman sarean euskaraz aritzeko ezinbestekoa da lehenago hastea lanean. Deban, jada, bide honetan lehen urratsak eman ditugu. Bidea luzea izan daiteke, baina hemen doa gonbitea denon artean bakoitzak bere harritxoak jarri bidea egiteko.

Udalak ere babestuko du ekimena

Egitasmoarekin bat egiteko konpromisoa hartu dute jadanik herriko eragile ezberdinek (ikastetxeek, guraso elkarteek, euskaltegiak, euskara elkarteak, herritar partikularrek...). Eta, Euskara eta Hezkuntza batzordearen oniritziarekin eta 6.000 euroko aurrekontuarekin, Debako Udalbatzak ere behin betiko onartu zuen otsailaren 27ko ez ohiko bilkuran *Euskaraldia*, 11 egun euskaraz ekimenarekin bat egitea.



UXUE PASCUAL

Immigranteak, haiek!

Altxa dezala eskua lagun immigrante bat duenak; laguna, ez ezaguna soilik; etxera bazkaltzera gonbidatuko zenukeena edota afaltzera elkarrekin joateko aukeratuko zenukeena, zure penak kontatuko zenizkiokeena edota mesede bat eskatuko zeniokeen hori.

Gizon batek ezingo du inoiz jakin zer den erditzea, gaur egungo gaztetxo batek zer den mugikorrik gabe bizitzea, ez eta internet gabe bizitzea ere. Gutako gehienok ez dakigu zer den guda bat bizitzea eta gehienok ez dugu jakingo zer den gosea pasatzea ere. Gutxi batzuek dakite zer den ur azpiko munduan arrantza egitea eta are gutxiagok Senegaleko Sabar dantza egitea. Oso gutxi dastatu dute inoiz katu bat, kilberra edota eskorpioia. Gutxi batzuek ikasi dute dantza bitarteko terapia eta are gutxiagok kolore bitarteko terapia zehatza. Munduan gutxi batzuek egiten dituzte kable gainean ibiltzeko zapatila bereziak eta are gutxiago daude ilargira joan direnak. Gutxi batzuek egin dute salto hegazkin batetik eta are gutxiagok Dorre Bikietatik.

Nork daki zer sentitzen den inoiz bizi ez dugun esperientzia baten aurrean? Inork ere ez, ez baita hori izan gure mundua; bai, ordea, lagunarena, berak, eta soilik berak, eraman gaitzake bere mundura, bere mundua ezagutzera. Badira, aldiz, guzti-guztiok bizi ditugun esperientziak, guztiontzat berdin-berdinak direnak; adibidez, ondokoan onarpena sentitzeko beharra.

7.493.907 euroko aurrekontua onartu du Debako Udalak

Otsailaren 27an egindako osoko bilkuran behin-behinekoz onartu zituzten Debako Udaleko, Itziarko entitate txikiko eta udal patronatueta 2018rako aurrekontu orokorrak. Debako Udalak 7.493.907 euroko aurrekontua izango du, iaz baino %4,02 gehiago. Itziarko Auzo Udalak, berriz, 854.939 euro izango ditu, iaz baino %5,51 gehiago; eta Deba Musikalek eta Arte Eskolak 533.077 euro eta 196.460 euro, hurrenez hurren. Aldeko zortzi botorekin onartu ziren aipatutako kopuruak -Debarren Ahotsako bost eta EAJ alderdiko hiru-, eta Ehbilduk kontrako lau bozka eman zituen.

Udal agintariak nabarmendu dute altxortegiko soberakina 2,3 milioi eurokoa dela. Eta legealdi honetarako Udalak duen inbertsio estrategikoen plana aktibatzeke egoera ekonomikoa "ezin hobea" dela deritzote. Aurrera begirako inbertsioetarako zenbatekoa zehaztu ez duten arren, udal gobernuko kideek gogorarazi dute 2018rako hainbat inbertsio aurreikusten



Ander Salegi

dituztela. Asmo edo proiektu horien artean azpimarratu dituzte, adibidez, hilerria lekuz aldatzea, eguneko zentroa eta bere sarbidea egokitu eta hobetzea, Angulero kalea urbanizatzea, Kultur Etxea, hondartzako pasealekuaren proiektua eta itsasadarreko proiektua. Osioko sarbidea, plaza zaharreko argiteria hobetzea, Santa Katalinako begiratokia edota pilotalekuko terraza babestea ere aipatzen da inbertsioen artean.



Ehbilduk hainbat ekarpen egin dizkio Debarren Ahotsak eta EAJk aurkeztutako 2018ko udal aurrekontu proposamenari, baita garrantzitsuak diren hainbat inbertsio egiteko proposamenak eta babes eskaini ere. Debarren Ahotsak eta EAJk nahiago izan dute gure ekarpenik ez jaso, beraz, Ehbilduren bozka ezezkoa izan da.

Udala ez da aurrezki kutxa bat

2018 urterako **udal aurrekontua 7.479.288 eurokoa** izango da, %3,84ko igoera izango du 2017koarekin alderatuz. Udalaren **altxortegiko aurrezkiak 2.330.891 eurokoa** da (2017ko abenduaren 31n). Egoera ekonomikoa onak beharrezko

inbertsioak gauzatzeko aukera ematen digu, baina udal gobernu honen kudeaketa eta inbertsio plangintzarik ez dugu ezagutzen.

Aurrekontuari ekarpenak

Arlo desberdinetan ekarpenak egin ditugu. Hauek dira azpimarragarriak: Arte Eskola birpentsatzeko Plan Estrategikoa burutzea (aurreko legealdian osatutako parte-hartze prozesuaren ondorioa), Miramar Hotelaren lur-eremua skaterako egokitzea, Itziarko industrialderako Plan Estrategikoa osatzea.

Inbertsio garrantzitsuetarako proposamenak eta babesak

Ehbilduk 970.000 euroko inbertsio

plangintza bat proposatu dio udal gobernuari kulturean, turismoan, etxebizitza arloan eta kirolean: kiosko gunerako kultura-proiektua osatzeko ideia lehiaketa eta proiektua gauzatea, arraun kiroleterako gunea "Kaseta Beltzean", Mogel kaleko eskolako eraikina eraistea etxebizitza "dotazionalak" egiteko, Deba ibaia biziberritzeko bi proiektu gauzatea (Maxpe-Artzabal eta Ondarbeltz zubirainokoa, Mutriku Ondarbeltz bidegorriarekin lotura egiteko), bideragarritasun plana gauzatea Kresala Hotela Udalak erosteko aukera aztertzeke, Danobat gunean turismorako aparkalekua (autokarabanak, furgonetak,...) egitea.

Eskolako Agenda 21 egitasmoaren inguruko bilkura udaletxean

Eskolako Agenda 21 egitasmoaren baitan, otsailaren erdialdean Debako ikasleek bilera teknikoak egin zuten udaletxean, aurtengo ikasturtean lantzen ari diren gaiaren inguruan: ura eta Deba ibaia. Gai horren inguruko azterketa-lana eta herriko diagnostikoa egiten dabilta eta sortu zaizkien galderak egiteko eta zalantzak argitzeko aukera izan zuten.

Bilera teknikoan Luzaro ikastetxeko 4., 5. eta 6. mailako bederatzi ikasle, gainerako ikasleen ordezkari gisa eta euren koordinatzaileak lagunduta, Udaleko Ingurumen teknikariak, Gipuzkoako Ur Kontsortzioko teknikariak eta Debegesako kideek parte hartu zuten.





Dagokiona baino 109.000 euro gutxiago jasoko ditu Itziarko Auzo Udalak

Debako Udal Gobernuak erabaki du Itziarko Auzo Udalarari dagokiona baino 109.000 euro gutxiago ematea. Foru Dekretuaren irizpideak alde batera utzi eta auzo udalak aurkeztutako proposamen nagusiak gutxietsi ditu horrela.

Zigor Aizpurua auzo alkateak osoko bilkuran bertan salatu zuen Debako Udal Gobernuak, aldebakarreko irakurketa egitean, Itziarko Auzo Udalaren garapenari dagokion bigarren fasearen formularen zati bat bakarrik aplikatu duela, "ez osorik, eta, horren ondorioz, behar-beharrezko ditugun 109.000 gutxiagorekin geldituko gara eta zerbitzu batzuk ezin emanik".

Aizpuruak dio egoera injustua dela. "Debatik esango dute berriro negoziaketak eten genituela, akordioetarako borondaterik ez dugula, baina legea lege da, araua arau, eta Debako Udal Gobernuak aldebakarreko irakurketa egitean hori urratzen du eta errealitatea da bi milioi euroko gerakina eduki arren, Itziarren inbertsioak egiteko dirurik ez duela egokitu nahi". Auzo alkatearen arabera, proposamenek arrazoitutako zerbitzu eta premia

konkretuak asetzea zuten helburu, auzotarren ongizate eta bizi-baldintzen garapenerako.

Nabaria da Debako Udal Gobernuak ez diola errekonozitzen Itziarko Auzo Udalarari legez dagokion bezalako autonomia, eta aurrekontuetan jasotako partidak xedatu eta berauen erabilerak erabakitzeko ahalmen propioa. Debako Udal Gobernuak ez dio eskaini negoziaketarako biderik Itziarko Auzo Udalarari, eta nahi izan dituen aurrekontuak inposatu ditu.

Bitartean, Itziarko Auzo Udalarari gero eta ardura gehiago egotzen zaizkio egunerokotasunean, baina arduren araberako baliabide eta laguntzarik ez zaio eskaintzen. "Begi-bistakoa da Debako Udalak jarritako baliabideekin ez garela iristen gutxieneko zerbitzu eta kudeaketak bermatzera", dio auzo alkateak, "baina oztopoak oztopo, Itziarko Auzo Udaletik gure asmo eta proiektuekin aurrera jarraituko dugu, onura eta aurrerapenak urtetik urtera nabarmenduz. Oztopoak oztopo, auzotarrok merezi dugun bizi kalitatea hobetzen eta ongizatean sakontzen".

Bideo-jokoak sortzen ikasteko tailerra egingo da apirilean

Apirilaren 3tik 6ra bitartean, *bideo-joko sorkuntza tailerra* eskainiko du Gazte Robotikak Deban. 8 eta 15 urte bitarteko gaztetxoei zuzenduta egongo da ekimena. Haur eta gazteen artean zientzia, teknologia, ingeniariartza, artea eta matematikarekiko interesa piztea da tailerraren helburua. Alegia, "robotikaren munduan sartu eta teknologiarekin ikasi, jolastu eta ondo

pasatzeko" aukera eskaini nahi zaie gaztetxoei.

Saioak euskaltegian (Ifar kalean) egingo dira, goizez, 9:30etik 13:30era bitartean. Parte hartzeko interesa dutenek aurrez eman beharko dute izena. Informazio gehiagorako, kontsultatu www.gazterobotika.eus atari digitala edo deitu 660 382 674 telefono zenbakira.



MAITE RODRIGUEZ

Etxe barruko airea

Aire kalitatea edo atmosfera kutsatzaileak aipatuz gero, niri behintzat, hiri handiak, kotxe ilarak, lantegiak eta antzekoak etortzen zaizkit burura. Pentsatu al duzue sekula nolakoa den zuen etxe barruko airearen kalitatea?

Etxean erabiltzen ditugun produktu askok, pinturek, garbiketa produktuek, usaindun kandlek, etab. konposatu organiko lurrunkorrak (KOL) askatzen dituzte airera. Formaldehidoa, azetona, bentzenoa, karbono disulfidoa eta toluenoa ohiko osagaiak dira.

Horietako produktu asko erabiltzeak buruko minak, gibelesko kalteak eta giltzurrunetako kalteak sor ditzake. Nitrogeno oxidoarekin bateratuz gero, biriketan barneratu eta arnas aparatuko gaixotasunak ere sor ditzakete.

Etxeko aire kalitatea hobetu nahi izanez gero, era erraz bat da norberak garbitzeko produktuak egitea. Ozpina, limoi zukua, bikarbonatoa eta beste gauza gutxi batzuekin garbiketa produktu pila egin daitezke. Laborategian probatu dituzte eta erositako produktu askok baino lan hobea egiten dute askotan. Interneten erraz topa daitezke errezetak. Bide batez, zabor gutxiago sortuko genuke garbiketa produktuak ez erositara. Beste irtenbide bat airea garbitzen duten landareak haztea da, huntza, potosa, aloe vera edo banbua, adibidez. Landare mota bakoitzak ez ditu produktu kimiko guztiak garbitzen, beraz, landare mota desberdin batzuk haztea izango litzateke onena. Gainera, landare adartxo batetik landare berri bat ateratzea posible izaten da askotan (huntza eta potosarekin, adibidez). Animatu eta hobetu egunero arnasten duzun airearen kalitatea!

ELURTEA, IRUDITAN



Gotzon Indamendik Euskadiko Muay Thai txapelketa irabazi du

Debako Gotzon Indamendi gazte-arentzat izan da garaipena Euskadiko Muay Thai txapelketan. Otsailaren erdialdean jokatu zen lehia, Gasteizko Judimendi kiroldegian, eta Indamendik 86 kilo azpiko kategorian parte hartu zuen, urrea eskuratuz. Senide eta lagun ugari izan zituen alboan Ermuako Knockout gimnasio-ko ordezkari den gazte debarrak Gasteizko hitzorduan.

Muay Thai-a Thaiandiako kirol nazionala da. Siam-eko gerlariek esku



hutsez borrokatzean erabiltzen zituzten tekniketan oinarrituta dago. Kontaktuzko kirola da eta borrokalariek oinekin, belaunekin, ukondoekin, ukabilekin jo dezakete elkar.

Martin Hernandez Beitiak Espainiako atletismo txapelketan parte hartu du

Martxoaren 10ean eta 11n Malagako Antequera herrian jokatu zen Espainiako Atletismoko pista estaliko txapelketa eta Martin Hernandez Beitia gazte debarra bertan aritu zen lehian, jubenil mailan, 800 metroko lasterketan.

Finalerdietan laugarren sailkatu zen, 1.58'53ko denborarekin, eta finalean parte hartzeko zortzi ehuneko izan zituen faltan.

Antequerako txapelketara iritsi aurretik, Mintxeta Atletismo taldeko ordezkari gazteak Donostiako Anoeta belodromoan jokatu zen Gipuzkoako txapelketa irabazi zuen seniorretan, 800 metroko lasterketan (2.05'87ko denborarekin). 18 urtez azpiko kategorian, Gipuzkoako txapelketan ere nagusitu zen eta Euskadiko txapelketan bera izan zen azkarrena 800 metroko lasterketan.

Abian da Gipuzkoako Hiru Txirlo Bolo Txapelketa

Joan den martxoaren 17an Sorluzen (Ezozin) abiatu zen Gipuzkoako 49. Hiru Txirlo Bolo Txapelketa. Aurtengo lehiari dago-kion azken jaurtialdia maiatzaren 26an izango da (Azkoitiko Floreagan), eta ekainaren 2an Lehendakari Saria jokatu da Elgetan. Txapelketako

saio guztiak larunbatetan izango dira, 17:00etatik aurrera, eta sari ezberdinak daude jokoan.

Apirilaren 7an Lasturren bilduko dira txapelketako parte-hartzaileak eta zaleak, eta laugarren tiraldia Bergaran izango da, San Joxepen, apirilaren 14an.

Junior mailako txirrindularien proba apirilaren 14an jokatu da

Kadete mailako lehia martxoaren 24an jokatu ostean, Amaikak Bat Txirrindularitza Taldeak antolatutako hurrengo proba apirilaren 14an (larunbata) izango da. Junior mailako-

ak lehiatuko dira, 86 kilometroko ibilbidea eginez. Maiatzaren 13an, berriz, Debako bira-zikloturista jokatu da eta 128 kilometro egin beharko dituzte txirrindulariek.



HAIKA AIZPURUA

Debako herriari

Askotan entzun dugu: "Debako gauza ora pro nobis". Proiektu guztiak bertan behera geratzen ziren. Egin behar zela esaten zen, baina gure begiek ez zuten ikusten.

Azken urteetan ez da ezer egin gure herriak aurrera egin dezan. Deba salgarria zela bagenekien, aberatsa zela bagenekien, esplotagarria zela bagenekien; eta urte askotan zehar bere fruituak eman zizkigun arren, ez genuen inbertsiorik egin. Itxaroten eman dugu denbora agortu zaigun arte. Plan estrategiko gabeko herria izan gara eta izaten jarraitzen dugu.

Saltzaile onak garela ez dago dudarik. Lehena Ekaineko kobazuloa izan zen, ondoren Flysch-a eta orain geratzen zaigun bakarra, Santiagoko hondartza ere, bide beretik doa. Eskuinetik hasi eta ezkereraino Kantauri itsasoak bustitzen duen kostako irudirik eskasena geratu zaigu. Bigarren gerra zibila pasa dela dirudi gure hondartzara begiratuta. Miramar hoteleko lurrazala, kasinoa, Kresala hotela, duna artifiziuala eta Debako ibaia. Zein baino zein penagarriago dago, herri hau izandakoaren aztarna bat balitz bezala. Plásticos Reiner eta Ondarbeltzeko frontoiak, Debakoak ez izan arren, gurea den marka oztopatzen dute.

Badirudi Debako herria iritsi dela bere azkenetara. Ezer ez egitekotan orain bai dugula aukera, mesedez, eska diezaiegun arren guregatik otoitz egin dezaten.

DEBAKO GAUZA ORA PRO NOBIS, AMEN!!

Debako Gazte Emantzipaziorako Taldea



“Oinarrizko baliabide bat izan ordez, aberastasun metaketarako tresna huts bihurtu dute etxebizitza”

Otsailaren 16an zabaldu zen albistea: “Debako gazte talde batek etxebizitza bat okupatu du Montreal kalean”. Gertakari edo “aldarrikapen ekintza” horren harira, Debako Gazte Emantzipaziorako Taldeak *Berriketan* aldizkariarengana jo du. Gazteek burututako okupazioaren zergatia eta helburua, etxebizitzaren gaur egungo egoera Deban, gazteen emantzipazio aukerak... izan ditugu hizpide ondoko elkarrizketan.



Martxoaren 10ean etxebizitza eskubidearen alde ateratako argazkia.

Joan den otsailaren 16an Montreal kaleko 7. zenbakian dagoen etxebizitza bat okupatu zela jakin genuen. Debako Gazte Emantzipaziorako Taldeak burutu zuen ekintza hori?

Okupatu, lehenago okupatu zen, 16an publiko egin zen arren. Okupazioari dagokionez, Debako gazte talde batek burutu zuen. Sare sozialetan difusioa eman diegun arren eta gurekin harremanetan egon badira ere, argi utzi nahi dugu okupazioa ez duela Debako GETek burutu.

Zergatik okupazio ekintza hori, eta zein helbururekin?

Hasieratik gazteek azaldu duten moduan, okupazioaren helburu nagusia etxebizitza konkretu horren utzikeria egoera eta orokorrean gure herrian etxebizitzarekin dagoen arazo nabaria salatzea izan da, agenda politikoa lehentasun bezala txertatzearekin batera. Izan ere, gure herriko errealitate gordin honen ondorio izan da aldarrikapen ekintza hau burutzea; 20-30 urte bitarteko zenbat gazte daude beraien baliabideekin gurasoen etxetik emantzipatzeko gai izan direnak? Gutxiengoa.

Zer erabilera eman nahi zitzaion etxeari? GETek ez zuen eraikinari emango zitzaion erabilerekin inguruan erabakirik hartu. Desalojo ilegalaren ostean, zein

forma hartuko zuen jakin ezingo dugun arren, badakigu herri mugimenduari eta eragile sozialei irekitako leku bat sortzeko asmoa zegoela, besteak beste, doako yoga klaseak, klase partikularrak herriko gaztetxoentzat, bertso eskola, formatu txikiko kontzertuak, hitzaldietarako eta bestelakoetarako gune ireki bat... bezalako ideiak zituztela buruan, bizitzeko egokitutako espazio batez gain, noski.

“Aspalditik izan dugu buruan bueltaka Debako egoera urbanistikoa eraldatzeko proposamenak egin eta hauek aurrera eramateko ideia”

Eta zergatik aukeratu zuten etxe konkretu hori?

Okupazioaren ardura hartu zuen gazte taldearen arabera, banketxe eta bestelako jabe handien menpe dauden etxebizitzak okupatzea zen asmoa. Debako GETek bat egiten du planteamendu honekin, azken finean hauek direlako zilegi ez deritzegun moduetan aberastasun handiak pilatu eta hauekin espekulatzeko dutenak. Dakigunaren arabera, okupaturiko eraikinak baldintza hau betetzen zuen, bestela-

ko arrazoiren bat ere egongo da agian.

Herriari okupazioaren berri eman zitzaion, sare sozialak eta aldarrikapen pankarta bat baliatuta, besteak beste. Herriarren partetik zer erantzun jaso zuten gazteek?

Publiko egin zenetik desalojo ilegalak eman arteko ordu gutxi horietan herriko hainbat gazte eraikina bisitatzera gerturatu ginen, horietako batzuk gaua bertan pasatzeko prest ere bageunden, sare sozialen bidez ere elkartasun mezu ugari jaso dira, baita herritik kanpoko pertsona eta eragileen partetik ere. Orokorrean, us-te baino handiagoa izan da ekintzak herri-tar askorengan sortu duen babes-jarrera eta kasu batzuetan baita harrotasuna ere. Horrek indar asko eta planteamenduei eusteko gogo handia ekarri digu.

Nolanahi ere, okupazioa publiko egin eta ordu gutxira, arratsaldean, zerbait gertatu zen, ezta?

Jakitera eman denez, identifikatu gabeko hiru pertsonak etxeke atea indarrez bortxatu eta mehatxuka, kolpeka eta arrastaka bertan zeuden pertsonak kalera irtetera behartu zituzten, baita balkoiko pankarta kentzera ere. Ertzaintzari deitu eta delitua burutu zuten pertsonetatik bi identifikatu zituzten, hirugarrenak, kol-

peak burutu zituenak, alde egin zuen delituaren eszenatik. Geroago jakin dugu eraikina egin zuen enpresako jabea izan zitekeela erasotzaileetako bat, herrian diotenez, krisiarekin kiebran erori, zorpetu eta etxeak bukatu gabe utzi zituen, geroago bankuaren eskuetan amaitzeko.

Egoera deserosoa, hortaz...

Guretzat desilusio handia izan zen, horrelako proiektu baten erasiketarik. Are gehiago, eman zen moduagatik, herriko gazteak mehatxatu eta kolpatu baitzituzten. Eurekin egon ginenean oraindik "shock" egoeran zeudela nabari zitzairen. Gainera, gertakariak eztabaida desbideratu ere egin zuen, honelakoetan ohikoak diren zurrumurruek ekintzaren helburuei itzal eginez.

Eta zein da gaur egungo egoera? Alegia, etxeak okupatuta jarraitzen al du?

Desalojo ilegalaren ostean, erasotzaileek etxebizitza "okupatu" zuten. Gazteek zerabiltzaten bizitzeko oinarrizko baliabideak barruan gelditu zirelarik. Beraz, egoera korapilatsua da; eraikina bankuarena bada, erasotzaileek hau okupatu baitute, eta oraindik "eurena" bada, dituzten zorrak kitatzeko enbargatzea bailitzateke logikoena. Atzetik kontu ilunak ez badaude behintzat...

Burututako ekintza horrek judizialki ondorioak izan ditzake, adibidez?

Gertatutakoa demostratzen bada, kode penalaren 202, 147 eta 169 artikuluetan jasotzen diren delituak, eta agian 455 artikuluan jasotzen dena ere eman daitezke. Hau da, agresio eta mehatxuak burutu izana eta etxebizitza baten bortxaketa eta desalojo ilegala liratekeenak. Salaketa jarrita dago eta lesioen parte medikoa aurkeztu du gazte kolpatuak. Dena dela, epaileen esku geratzen da honen emaitza, ezeren ziurtasunik gabe. Bestalde, eraso burutu zuten pertsonak ere gazteen aurkako salaketa bat jartzea espero dugu, ohikoa izaten baita kasu hauetan salatua salatzaile ere bihurtzea, estrategia judizial kontua da.

Askok lotu dute Debako Gazte Emantzipaziorako Taldearen sorrera otsaileko okupazio ekintzarekin. Noiz sortu zen zehazki taldea? Zer nolatan?

Debako egoera urbanistikoa eraldatzeko proposamenak egin eta hauek aurrera era-



Aldarrikapen pankarta Montreal kalean okupatu zuten etxean.

mateko ideia aspalditik izan dugu buruan bueltaka, proiektu hau hilabeteetako lan-ketaren ondorioa da. Pasa den uda inguruan herri mugimenduko hainbat kideren artean eman ziren lehen pausoak.

"Montreal kaleko okupazioa ez da izan interes pertsonalei begira egiten den edota doako etxebizitza bat lortzeko burutzen den proiektu soila"

Etxebizitza duin eta egoki bat izateko eskubide unibertsala. Utopiatik gertuago errealitate bano?

Utopiak alde batera utzita, garrantzitsua da ulertzea: etxebizitza espekulazioa babestu, bultzatu eta diru publikoz laguntzen duen sistema batean bizi garela, eta horrelako egoera batean, noski ez dagoela inolako eskubide unibertsalik bermatzetik. Hau ez da gure herrian etxebizitza hutsik ez dagoelako... baizik eta etxebizitza pertsonen oinarrizko baliabide bat izan ordez, aberastasun metaketarako tresna huts bihurtu dutelako.

Eta etxeen jabeak txanponaren beste aldean...

Horrelako gauzak imajinatzen ditugunean ohikoa da etxe jabe txikiak irudikatzea eta geure burua hauekin identifikatzea. Baina errealitatea oso urrun dago irudikeria honetatik, izan ere etxebizitza gehienak esku gutxietan daude, eta esan bezala, hauen helburua espekulazioa da kasu gehienetan.

Nola ikusten duzue etxebizitzaren egoera Deban?

Gazteen perspektibatik egoera latza da. Alde batetik, gure herria herritarro baina gehiago, udaldi eta turismora begira kudeatzen da, alokairu duin bat lortzea ezinezko bilakatuz. Bestetik, administrazioek ere ez dute gazteen emantzipazioa ahalbidetuko duen alternatiba errealik plazaratu.

Ez da hau herrian bertan etxe edo eraikin bat okupatzen den lehen aldia, ezta azkena ere ziurrenik. Zertan bereizten da (bereizten baldin bada) Montreal kaleko etxebizitzaren okupazioa bestetatik?

Azken urteetan bi okupazio eredu kontrajari ezagutu izan ditugu gure herrian: helburu sozialekin 2000. urtean okupatu zen Debako Gaztetxe ohia -San Roke kalean zegoena- eta perspektiba indibidualista batetik eman izan diren etxebizitza okupazioak. Montreal kaleko etxebizitzaren okupazioa bi hauetatik ezberdintzen da. Batetik, gaztetxearen okupaziotik bereizten da, aisialdi alternatibak eskaintzeaz gainera bizitzeko espazio baten eraikuntza ere barne hartzen duelako. Bestetik, Montreal kaleko okupazioa ez da interes pertsonalei begira egiten den edota "doako etxebizitza bat" lortzeko proiektu soila, egoera injustu baten salaketa eta batez ere eraldaketa soziala helburu dituen ekintza baizik.

Galdetu ez dugun zerbait nabarmendu nahiko zenukete?

Norbaitek gurekin harremanetan jarri edota informazio gehiago lortu nahi badu, debakoget@gmail.com helbidean eta Facebooken aurkituko gaitu.

Berriketan Gartea

2018ko martxoan
Mendata BHIko Prentsa Tailerrean Sortua

Arotz-Eneara Irteera



Otsailaren 5etik 7ra, Mendata BHIko 2. mailako ikasleak Arotz-Enean (Etxarri-Larraunen) izan ziren, Nafarroako lurraldean Kutxak duen aterpe eder batean.

Otsailaren 5ean, goizean goiz, Debatik Arotz-Enearuntz abiatu ziren. Bertara iritsi bezain laster, hiru egun horietan edukiko zituzten begiraleak eta aterpea ezagutu zituzten.

Eguraldiak asko lagundu ez zuen arren, ekintza eta tailer ugari egin zituzten, besteak beste, mendi buelta bat eman, ukendu bat egin, egagro-



pilen tailerra, animaliei buruzko tailerra, herria ezagutu...

Egagropilen tailerrean, txoriek jaten zutena eta digeritu gabe uzten zituzten materialen bolak aztertu zituzten, bertatik hezurak nabarmenduz.

Ukenduaren tailerrari dagokionez, aterpearen ondoko belarditik jaso zituzten belar batzuk erabiliz egin zuten ukendua, ubeldurak desagerarazteko, odoluzkiak sendatzeko... Ondoren, belar horiek beste osagai batzuekin nahastu eta pote txikietan banatu zituzten.



Egunean zehar egiten ziren ekintzez gain, gauean ere ekintza batzuk egin zituzten, hala nola diskoteka, itzalen tailerra...

Ikasleek diotenez, gehien gustatu zitzaiena elurretan jolastea eta gauean geletan izan zuten giroa izan zen. Irakasleen ustez, berriz, gauak izan ziren okerrenak.

Ikasleak eta irakasleak naturan murgilduta eta giro ederrean ibili ziren. Ikasle gehienek oso ondo pasatu zutela eta berriro joango liratekeela adierazi ziguten.

Maitasun gutunen lehiaketa Mendatan

2018ko otsailaren 14an, urtero bezala, San Balentin eguna ospatu genuen. Horretarako, maitasunari buruzko literatura eta kartelen lehiaketa bat antolatu genuen. Maila bakoitzak bere zeregina izan zuen: 1. mailan olerki bat idatzi zuten, euskaraz; 2. mailan olerki bat, gaztelaniaz; 3. mailan maitasun gutun bat, gaztelaniaz, eta 4. mailan amodiozko gutun bat, euskaraz. Otsailaren 23an izan zen sari banaketa, lehenengo eta bigarren jolas-orduetan.

Epaimahaikideak lau irakasle (Gaztelania arloko bi eta Euskara arloko beste bi) eta 4. mailako bi ikas-

le izan ziren. Epaimahaikak lau irabazle aukeratu zituen. Aukeraketa hau egin ondoren, ikasleek egindako kartelak eta idatzitako lan guztiak ikastetxeko 1. solairuko hormetan zintzilikatu ziren, ikasleek, mailaka, bozketa baten bidez, beste lau irabazle aukeratu zituzten.

Irabazleak edo sarituak honako ikasleak izan ziren:

Epaimahaikak aukeratutakoak:

1. mailan: Nadia Peralvo. 2. mailan: Martina Soto. 3. mailan: June Rodriguez. 4. mailan: Ane Txurruka.

Ikasleek aukeratutakoak:

1. mailan: Danel Furones. 2. mailan: Jon Gonzalez. 3. mailan: Eñaut Viñaras. 4. mailan: Elaia Oartzabal.

Kartelei dagokienez, irabazleak Arantza Odriozola eta Olatz Matias izan ziren. Lehiaketa honetan 4. mailako ikasleek bakarrik parte hartu zuten.



“Inor ez da perfektua” diskoko partaide batzuekin solasean



“Denon artean zerbait berezia egitea pentsatu zuten irakasleak eta disko bat atera genuen”

Oraingo honetan, “INOR EZ DA PERFEKTUA” diskoan parte hartu duten kide batzuei egin diegu elkarrizketa, taldeak iaz kaleratu baitzuen lehenengo diskoa. Hona hemen galderak eta erantzunak:

Nola bururatu zitzaizuen disko bat ateratzea?

Kanta bat ondo jotzen genuenean, ikasle heldu batek diskorako apuntatzeko esaten zion irakasleari. Horrela, denon artean zerbait berezia egitea pentsatu zuten irakasleak eta disko bat ateratzea bururatu zitzaigun.

Zenbat kide zarete taldean?

35 pertsona inguru.

Adin berekoak zarete guztiak?

Ez. Gazteak, helduak... gaude tartean.

Nork lagundu dizue diskoa ateratzen?

“Brothers” estudioko kideek, beste musikari batzuek musika tresnak utzi zizkiguten, dendek... hainbat lagunek.

Zenbat abesti daude diskoan?

17 abesti dira guztira.

Zuek asmatutako abestia zertan dago oinarrituta?

Ikasle batek abesti bat jotzerakoan eta irakasleak gehiago eskatzen zionean, “Inor ez da perfektua”, erantzuten zion ikasleak. Horregatik jarri zitzaion “Inor ez da perfektua” izena diskoari.

Nolako esperientzia izan da estudio batean grabatzea?

Itziar: Polita eta ahaztezina.

Eider: Berezia, errepikatuko nuke.

Maitane: Errepikatzea zaila den esperientzia, baina polita.

Jone eta Nerea: Ona, baina hasieran pixka bat arraroa.

Beste proiekturen bat egiteko asmoa duzue?

Gustatuko litzaiguke, baina lan handia egin behar da horretarako; gainera, ez da hain erraza.

Inkesta

Euskararen erabilera

Ebaluaketa honetan, "Hizkuntzen egoera" landu dugu hirugarren mailan eta gai horrekin lotutako inkesta bat burutzea erabaki dugu. Bide batez, euskararen erabilera inguruko hausnarketa bat egin dute gure inkestari erantzun dioten ikasleek:

- 1.- Zuen artean euskaraz hitz egiten al duzue? Eta etxean?
- 2.- Nola ikusten duzu euskara maila Deban?
- 3.- Gazteon artean euskaraz hitz egin behar dugula uste al duzu?
- 4.- Euskara behar adina hitz egiten dugula esango zenuke?
- 5.- Zer nahiago duzu egunerokotasunerako, euskara ala gaztelera?
- 6.- Euskara galtzeko arriskua ikusten duzu? Pena emango lizuke?
- 7.- Euskara bultzatzeko ekimenak egingo zentuzke? Zer nolakoak?
- 8.- Etorkizunean, zer hizkuntza erabiliko duzu?

Lucia Saa



- 1.- Lagunekin normalean euskaraz egiten dut. Etxean, berriz, gaztelera.
- 2.- Nahiko eskas, egia esan.
- 3.- Egin beharko genuke. Arrazoietako bat da Euskal Herrian gaudela.
- 4.- Ez, batzuekin ez baitut egiten.
- 5.- Momentuaren arabera.
- 6.- Ez dut arrisku handirik ikusten, baina pena emango lidake.
- 7.- Lagunekin beti euskaraz egitea, adibidez.
- 8.- Euskaraz ikusten dut neure burua etorkizunean ere.

Hassnain Nassir



- 1.- Lagunen artean euskaraz. Etxeko hizkuntza urdua denez, urduz egiten dut gurasoekin, eta anaiarekin euskaraz.
- 2.- Ondo ikusten dut.
- 3.- Egin beharko genuke. Euskal Herrian bizi garelako.
- 4.- Ez, gehiago hitz egin behar dugu.
- 5.- Euskara nahiago dut.
- 6.- Ez dut arriskurik ikusten, baina galduko balitz pena emango lidake.
- 7.- Bai. Ez dakienari erakutsiz, adibidez.
- 8.- Euskaraz, noski.


Ainhize Agkarraga



- 1.- Bai, gehiegi.
- 2.- Itziarren jende gehienak euskaraz hitz egiten du.
- 3.- Bai, gure hizkuntza delako.
- 4.- Bai.
- 5.- Euskara.
- 6.- Bai, pena emango lidake.
- 7.- Lagunekin euskaraz egin, adibidez.
- 8.- Euskaraz.

Denbora-Pasak

Aurkitu bost ezberdintasunak



laguntzaileak:



babesleak:





Nahi Barrera

- 1.- Bai, lagunekin eta etxean.
- 2.- Ez dut oso ondo ikusten Deban.
- 3.- Bai, noski, gure esku geratzen da euskara bultzatzearen helburua.
- 4.- Bai. Batzuekin gazteleraz hitz egiten badut ere, gehienbat euskaraz egiten dudalako.
- 5.- Euskara nahiago.
- 6.- Jendeak ez du erabiltzen. Arriskua ikusten dut eta pena emango lidake.
- 7.- Hainbat ekitaldiren bidez bultzatuko nuke euskara.
- 8.- Euskaraz ikusten dut neure burua.




Mera del Olmo

- 1.- Lagunekin eta familiarekin euskaraz.
- 2.- Gaizki edo, beste modu batean esanda, batere ondo ez.
- 3.- Bai, euskaldunak garelako.
- 4.- Bai. Nik ahal dudan guztietan egiten baitut euskaraz.
- 5.- Euskara, noski.
- 6.- Ez dut arriskurik ikusten, maite dugunok euskaraz hitz egiten badugu. Bai, pena handia emango lidake.
- 7.- Bai, ez dakitenei erakutsi, adibidez.
- 8.- Euskaraz.



Ibai Salegi

- 1.- Bai.
- 2.- Erdizka.
- 3.- Bai. Euskara gure hizkuntza delako.
- 4.- Bai.
- 5.- Euskara.
- 6.- Nire aldetik ez, baina arriskua ikusten dut. Pena handia emango lidake.
- 7.- Ekintza batzuk bai. 24 ordu euskaraz aritzea, adibidez.
- 8.- Euskaraz espero dut.



Ixai Otalvaro

- 1.- Lagunekin eta ahizparekin bai. Gurasoekin gazteleraz edo ingelesez.
- 2.- Beno, erdi maila batean.
- 3.- Bai, bestela galdu egingo litzateke.
- 4.- Ahalik eta gehien erabiltzen dut, baina ez dakitenekin gaztelaniaz aritzen naiz.
- 5.- Euskara nahiago dut.
- 6.- Euskaraz hitz egiten badugu, ez da galduko. Bai, noski.
- 7.- Beno, bai. Ez dakit zeintzuk.
- 8.- Neure burua euskaraz ikusten dut.




Danel Aranberri

- 1.- Bai, bai.
- 2.- Gero eta jende gehiagok egiten du gazteleraz, baina badago euskaraz egiten duen jendea ere.
- 3.- Bai, euskaldunak garelako eta euskara bultzatu behar dugulako.
- 4.- Gehiago hitz egin behar dugu.
- 5.- Euskara.
- 6.- Hitz eginez gero, ez da galduko. Bai, pena emango lidake.
- 7.- Bai, ez dakien jendeari erakutsiz, adibidez.
- 8.- Euskaraz.

Asmakizuna

Zenbat hanka ditu elefanteak?



Txistea

Itsasontzi batean doaz euskaldun bat eta ingeles bat eta ingelesa uretara erortzen da, zera oihukatuz:
-Help! Help! Help!
-Gela ez daukat -erantzun dio euskaldunak-, baina txanpua nahi baduzu?



Prentsa talerra 2017-2018

Goretti Unanue, Lorena Ladera, Elene Molina, Paula Del Olmo, Kimetz Etxabe, Enaitz Goikoetxea, Unax Arrizabalaga, Itziar Egaña, Maria Mendoza, Naroa Etxeberria, Alaitz Albizu eta Unax Urteaga.

Koordinatzailea: Tomas Ramos

AGENDA

MARTXOAK 29-APIRILAK 2

-Aste Santua.

MARTXOAK 29, OSTEGUNA

-17:30. Geoparkeko bisita gidatua Debatik Zumaiaara itsasontziz. Informazio gehiagorako: www.geoparkea.eus.

MARTXOAK 30, OSTIRALA

-10:00. Bisita gidatua: Flysch beltza. Informazio gehiagorako: www.geoparkea.eus.

-19:30. Azken ostirala. Euskal preso eta iheslari politikoen eskubideen aldeko elkarretaraztea, plazan.

MARTXOAK 31, LARUNBATA

-10:30. Geoparkeko bisita gidatua Lasturko plazan. Errota, taloak eta herri-jolasak familia osoarentzat. Ezinbestekoa da aurrez erreserba egitea. Informazio gehiagorako: www.geoparkea.eus.

APIRILAK 1, IGANDEA

-12:00. Bisita gidatua: Gotikoaren altxorra, Deban (Santa Maria eliza ezagutuz).

APIRILAK 3-6

-09:30. Bideo-joko sorkuntza tailerra, Gazte Robotikaren eskutik, 8 eta 15 urte bitarteko gazte-koentzat. Informazioa: www.gazterobotika.eus.

APIRILAK 7, LARUNBATA

-17:00. Gipuzkoako Hiru Txirlo Bolo Txapelketako jaurtialdia Lasturren.

APIRILAK 13, OSTIRALA

-19:00. Zuhatza euskara elkartearen urteko batzar orokorra, Kultur Elkartearen.

APIRILAK 14, LARUNBATA

-10:15. Amaiak Bat Txirindularitza Saria (junior maila).

APIRILAK 15, IGANDEA

-8:30. Mendi irteera, Burdin Kurutz M.T. eta Luzaro ikastetxeak antolatuta. Kanbo.

APIRILAK 22, IGANDEA

-Ipuin kontaketak. Agirre jauregiko ispiluen gelan. 17:00etan: 3-7 urteko haurrentzat/18:00etan: 7-12 urtekoentzat.

APIRILAK 25, ASTEAZKENA

-19:00. Irakurketa Kluba, Ostolaza Udal Liburutegian. Yolanda Arrieta idazleak gidatuko du saioa eta "Bihotz handiegia" (Eider Rodriguez) eleberria izango dute hizpide. Aurrez eman behar da izena liburutegian (943 192560 telefono zenbakira deituta edo ostolaza@deba.eus helbidera idatzita).

Ordutegi berezia liburutegian

Ostolaza Udal Liburutegiak ohiko ordutegia izango du martxoaren 26tik 28ra bitartean. Baina apirilaren 3, 4, 5 eta 6an, ordutegi berezia izango du. Liburutegi orokorra 9:00etatik 14:00etara egongo da zabalik eta haur liburutegia, berriz, 10:00etatik 13:00etara.

Gure Esku Dagoren giza katean izena emateko deialdia

-Erabakitze eskubidearen alde, Donostia, Bilbo eta Gasteiz lotuko dituen 201,9 kilometroko giza katea egingo da ekainaren 10ean. Euskal Herrian inoiz egin den giza katerik handiena iragarri du, hain zuzen ere, Gure Esku Dagok. Ekimena Debatik ere pasako da eta 750 herritarren parte-hartzea behar da. Izena ematen hasteko deia egin du dagoreneko Gure Esku Dagok. Horretarako aukera izango dute herritarrek ostiraletan (19:00etatik 21:00etara) eta larunbatetan (12:30etik 14:00etara), plaza berrian.



Ilustrazio eta ipuin lehiaketa

-X. Elkar Ilustrazio eta Ipuin Lehiaketa abian dago, haurren eta gazteen artean irakurzaletasuna eta sormena bultzatzeko helburuarekin. Lan guztiak apirilaren 9a baino lehen aurkeztu behar dira. Informazioa eta oinarriak: www.elkar.eus atarian.

	ZAINZAKO BOTIKA Egunez, 09:00etatik 22:00etara Zalduegi: martxoak 30, 31. apirilak 1, 9, 10, 11, 12. Burgoa Zuazo: apirilak 13, 14, 15, 23, 24, 25, 26.	DEBAKO BOTIKAK ZALDUEGI: 669 262 201 BURGOA ZUAZO: 667 338 890 Larunbat goizetan beti bat irekita: ZALDUEGI: martxoak 31 eta apirilak 7 BURGOA ZUAZO: apirilak 7 eta 14 9:30 - 13:00
	22:00etatik 09:00etara, Eibarren Azkue botika zabalik. Toribio Etxebarria, 4 (943 20 23 44)	

	ZURE ENTZUMENA ZAINTZEN Ostolaza, 7 20820 DEBA Tel: 943192192
--	---

Argazkilaria
Ander Salegi

(argazki erreportaiak, photoshop-eko erretokeak...)

Email: undersalegi@gmail.com

Tlf: 685 703 843



IZENBE

- Gosariak
- Txikiteoa
- Pintxoak

Itur kalea • Tlfnoa.: 943 192 473 • 20820 DEBA



Mikel

- Iturgintza
- Berogintza
- Gasak
- Altzariak
- Osagarriak

Mobila: 699 975 206
Tel./faxo: 943 191 774
Hondartza, 10 - behea
20820 DEBA (Gipuzkoa)
mikeliturgintza@euskalnet.net
www.mikeliturgintza.com



RAIKETAK S.L.
SAGARMIÑA

Hondartza kalea, 3-4 behea - 31 P.K.
20820 DEBA (Gipuzkoa)

Tel.: 943 192 249
Mug.: 618 214 282
sagarmina@sagarmina.com
www.sagarmina.com



atari

etxebizitza zerbitzu integrala

SAIMENTA, ALOKAIURAK, ABOKATUA
Lersundi 1. behea 20820 - DEBA
Tel.: 943192263
www.atariadeba.com



Lizaso
Autozerbitzua

Lersundi kalea, 21
Tlfnoa: 943 19 27 29



Jarri zure publizitatea
Berrietan aldizkarian!

Zuhatz

943 191 383
berrietan@zuhatz.com



ALBIZU
HARATEGIA

Lersundi kalea, 27 - 943 19 14 47 - 20820 DEBA (Gipuzkoa)



LIGARZA
TABERNA

Ostolaza, 5
DEBA
Tel.: 943 191 197



sasoiko

ekodenda,
dietetika,
belardenda

ZERBITZUAK:

- * Fisioterapia: teknioterapia (INDIVA)-drenaje linfatikoa -lesioak -...
- * Gimnasia hipopresiboak
- * Dietista
- * Podologia

Lersundi, 14 943 19 24 42 sasoiko@hotmail.com



JOXEAN GALDONA AIZPURUA

HORTZ-SENDAGILEA
Odontologia orokorra,
kirurgiak eta implanteak

Hondartza Kalea, 20 - behea
Tel.: 943 192 819
20820 Deba



BURU - ZURI
Taberna

- Ofartekoak
- Plater konbinatuak
- Gosariak
- Razioak
- Pintxo bereziak
- Luntxak
- Gauetan tragoak

Lersundi Kalea, 23
Tel.: 943 191 034
20820 DEBA



k
kutxabank



Hazirik
ZURE EKODENDA

San Roke Kalea 6, DEBA
telf.: 943 02 99 63
e-mail: hazirik@gmail.com



Calbeton

JATETXEA

Agustín
Larrañaga Elorza

Denboraldiko platerra
arrain eta barazkitan

Hondartza kalea
Tlfnoa.: 943 191 970
20820 DEBA (Gipuzkoa)



ASESORIA DEBA C.B.

JURIDIKOA - LABORALA - FISKALA - ASEGURU KONTABLEA - HIGIEZINAK

Miren Lore: 669 895 617
Edurne: 669 895 619

asesoriadeba@asesoriadeba.com
www.asesoriadeba.com

HONDARTZA, 2 - BEHEA Tel.: 943 192 127
20820 DEBA (GIPIZKOA) Fax: 943 192 482





- Autokarabanen, karabanen eta furgoneten salmenta, alokairua eta konponketa
- Tailer zerbitzua, epe luzeako parkinga, garbiketa-gunea eta ur karga eta deskargak
- Karabanin eta kanpin osagai-denda
- Homologazioak, kanperizazioak...
- 4.000 m²-tik gorako instalazioak



Itxaspe Auzoa, 3 –20829 Itziar (Gipuzkoa)
943 05 08 03 – 664 685897
www.inercaravan.eus

Zuhatza Euskara Elkarte: Urteko Batzar Orokorra

- **Gai ordena:**
 - 2017ko ekimenen balorazioa eta balantze ekonomikoa.
 - 2018ko aurrekontuak eta egitasmoak.
- **Eguna: Apirilak 13, ostirala.**
- **Ordua: Arratsaldeko 19:00etan.**
- **Tokia: Kultur Elkartean**



Kontaktuak: koordinatzailea@zuhatza.com edo 943 191 383 telefonoa
Besterik gabe, batzarrean elkar ikusiko dugulakoan agurtzen zaitugu.